

Guztiontzat eskuragarri dauden produktuak sortzeko helburua duen enpresa gara. Horretarako, pixkanaka etxetresna elektrikoen gama zabala garatuko dugu. Gure lehen produktua ile-lehorgailu bat izango da. Produktu honen bidez, lortu nahi duguna kontsumitzaileentzako ahalik eta erosotasun handiena eskaintzea da.

Gure produktuaren xede diren pertsonen aniztasuna kontuan hartuta, ilea lehertzeko orduan erraztasun handiagoa ematen diegu. Bere egitura egonkorra eta botoien diseinua bereiziki horretarako pentsatuta daude. Gainera, produktua ile-lehorgailua eutsi ahal izateko oinarri batekin dator, berezoei ilea modu independentean eta erosoagoan lehortzen uzten diena, beste pertsona baten laguntza barik.

Ile-lehorgailu hau merkatuan dauden beste askoren artean bereizteko gai da, lehen aipatu dugun bezala, bere egitura luzanga eta egonkorrari esker, erraztasun handiagoa sortzea lortzen du heldulaldiari dagokionez, gainerako ile-lehorgailu ez moduan. Hauek bere formagatik pisu gehiena alde bakar batera eramaten dutenez, besoetan indar gutxi duten kontsumitzaileentzat zailtasun bat bihurtu daitezke.

Botoien diseinuari dagokionez, ohiko palanken edo botoi gogorren ordezt, ukipen-sagu baten antzekoak izango dira, erraz sakatzeko. Gainera, beroa edo hotza irudikatzeko ikurrak izango dituzte, koloreen ordezt, daltonismoa duten pertsonen haiek bereizteko zailtasunak izan baititzakete . Azkenik, Braille sistema erabiliko dute. Horrela, ikusmen urritasuna edo ikusmenik ez duten pertsonen jakingo lukete ze botoi sakatuko dute.

Azkenik, gure produktua erabiltzen den bitartean ia zaratarik ez egiteak aukera ematen du, esate baterako, musika entzuteko edo beste pertsona batekin elkarrizketa jariakorra mantentzeko, baita zarata handiekiko tolerantzia handia ez duten pertsonen laguntzeko ere.